



EBAZPENA, 2024ko ekainaren 3koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena. Hemen dago ebatzita hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxe modura erabiltzen diren udal-erakinetan obrak egiteko gastuak ordaintzen laguntzeko deialdia. Deialdi hori (Udalaguntza-2023) Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduaren bidez egin zen (232 zk.dun EHAA, 2023ko azaroaren 5koa).

Ikusi dugu Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Agindua; agindu horren bidez arautu baitzen nola finantzatuko diren hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxe modura erabiltzen diren udal-erakinetan obrak egiteko gastuak (Udalaguntza-2023).

Ikusi dugu Hezkuntzako sailburuaren 2024ko maiatzaren 22ko AGINDUA, agindu horren bidez aldatu baitzen 2023ko azaroaren 22ko agindua, haren aurrekontu-kreditua gehituz (agindu hartan, dirulaguntza batzuetarako deialdia egin zen, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxe modura erabiltzen diren udal-erakinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko –Udalaguntza-2023–).

Ikusi ditugu aurkeztutako eskabideak, ebaluatutako txostenak, lehentasun-irizpideak eta Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena (batzorde hori 2023ko azaroaren 22ko Aginduko 9. artikulua araberako eraturik), eta honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenena.- Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako erakinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa onartzea (Udalaguntza-2023) ebazpen honen I. eranskinean aipatzen diren udalei eta hor zehaztutako zenbatekoen arabera, 2023ko azaroaren 22ko Agindua aplikatu dadin.

Bigarrena.– Udalek, finantzaketarako hautaturiko ikastetxeen titular direnez, esleitutako kopurua jasoko dute, 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren 13. artikuluari jarraituz.

Hirugarrena.– II. eranskinean zerrendatutako udalen eta ikastetxeen eskaerak ezestea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, bitarteko elektronikoz, "Nire Karpeta" atalaren bidez, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki taulan (E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa –Platea–) argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz,

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburordea
XABIER AIZPURUA TELLERÍA.

